Laguntzaileak

AIA

KIROLA ZARAUTZ Bizi bizia

PAGOETA PARKE NATURALA

ZARAUZKO UDALA

ANDATZA KAFETEGIA OKINDEGIA

DYA GIPUZKOA

ARITZBATALDE Bar Restaurante

UROLA KOSTAKO hitza

Geltoki kafetegia

PAGADI elektrizitatea

azkuelek ELEKTRIZITATEA

TALAI BERRI TXAKOLINA www.talaiberri.com

Lukas

Jesusa Frutak

Kaiku

Txaltxa BAR-RESTAURANT

Zapuceti

ZARAUTZ EROSKI zurekin

Txantxo

KUKULU HARATEGIA



alustiza Autobusak www.autocaresalustiza.com Movil: 656 78 29 99 E-mail: alustiza@autocaresalustiza.com

PME

PAGOETA

MENDIZALE ELKARTEA

Zarauzko Iraupeneko VI. Ibilaldia

2018ko maiatzak 6

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien 17. zirkuiturako baliagarria



MENDI LASTERKETA EZ DENEZ... IBIL ZAITEZ OINEZ !!!

banka kooperatiboa

LABORAL kutxa

- Irteera - Amaiera
- Kontrola
- Anoa gunea. *Urdanetako anoa gunean salda dago.*



Ibilaldiaren arautegia

Pagoeta Mendizale Elkarteak antolatutako ibilaldi hau mendian egindako ibilaldi herrikoia da. Kirola eta kultura dira helburu bakarra, natura errespetatuz mendizaletasuna bultzatzea, eta Zarautz inguruko mendi, txoko, eta ibilbideak erakustea.

Kontutan izan, mendi ibilaldiak **Kontserbazio Bereziko Eremu batean** burutuko direla, kasu honetan Pagoetako parke naturalean (horrek dauzkan balio naturalistiko handiaz, eta hari dagokion errespetuaren beharraz).

Iraupeneko Ibilaldia Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien 17. Zirkuiturako baliagarria da, eta ibiltarien partehartzea sustatzeko asmoz, Ibilaldi Txikia eta Ttipi-Ttapa ere antolatu dira.

ERANTZUKIZUNAK

Parte hartzaileek argi izan behar dute zeharkaldi hau mendi ibilaldi bat dela, eta kirol jarduera horrek arriskuak dituela. Parte hartzaileei ibilaldian edo ibilaldiaren ondorioz ezbeharren bat gertatuz gero, Pagoeta Mendizale Elkarteak ez du bere gain hartuko horren erantzukizuna. Parte hartzaileek uko egiten diote Elkarteaen kontra erreklamazioak jartzeari, edo kalte ordainak eskatzeari.

Mendi jarduerak egiteko federatua egotea gomendatzen da.

Elkarteak ekitaldi hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea: apirilaren 5etik maiatzaren 3ra **www.zirkuitua.com** web gunean. Argibide gehiago, astelehen eta osteguetan 20:00etatik 21:00etara 943 132911 telefonoan.

Martxaren egunean izena emateko aukerarik **EZ da egongo**, ez da horretarako mahairik jarriko.

Parte-hartzaileen kopurua 750 ibiltaritara mugatua da.


ORDAINKETA

Iraupeneko Ibilaldia eta Ibilaldi Txikia. Federatuek: 12 €; federatu gabeek: 15 €.


Ttipi-Ttapa Ibilaldia: Gaztetxoek: 0€; Helduek: 6€.

ZERBITZUAK

Antolakuntzak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezpera gauen bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hau erabili nahi dutenek antolakuntzari jakinarazi behar dio telefonoz edo e-mailez.



Iraupeneko Ibilaldia. Irteera ordua: 7:00-7:15, Igoera: 2.350m. Jaitsiera: 2.350m. Denbora: 9-10 ordu



Ibilaldia Txikia.
Irteera ordua: 8:00-8:15, Igoera: 1.340m. Jaitsiera: 1.340m. Denbora: 5:30-6:30 ordu

IRTEERA

Irteera eta amaiera: Zinema pilotaleku zaharrean (tren geltoki ondoan).

TtipiTtapa: Urdanetara joateko autobusa 9:30 etan irtengo da Zarauztik, eta 10:00etan emango da irteera Urdanetan. **AURREZ EMAN BEHAR DA IZENA.**

KONTROLAK

Parte hartzaileek ibilbidea egin behar dute eta ezarritako kontrol guneetatik igaro. Kontrol gune horietan martxa txartela erakutsi behar da, zigilua jartzeko. Kontrol guneak zabalik egongo dira kontrol txartelean adierazitako denbora tartean. Ordutegi horretatik kanpora doan ibiltaria **kanporatuta** geldituko da.

BALIZAK


Ibilbidea plastikozko zinten bidez markatuta egongo da.

HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezkoa den elikagaia ekartzea gomendatzen zaie. Antolakuntzak fruitu lehorrak, fruta eta ura jarriko ditu. **Edalontzirik ez da egongo.** Ibilbideko gune estrategikoetan sorospen zerbitzuak egongo dira.

IBILALDITIK ERRETIRATZEA

Ibilbidetik erretiratzea erabakitzen duten parte hartzaileek horren berri eman behar diete antolakuntzako kideei, txartela entregatuz edo 689045321 telefonora deituz. Ibilaldia uzteko tokirik egokienak dira Urdaneta auzoa, Iturriotz eta Iturraran.



Ttipi-Ttapa. Zarauztik irteera autobusez 9:30an.
Igoera: 350m. Jaitsiera: 700m. Denbora: 3:30-4:30 ordu.

AMAIERA

Helmugan diploma eta oparia emango zaizkio parte hartzaileari, antolakuntzak ezarritako denboraren barruan egin baldin badu ibilaldia.

DUTXAK

Ibilaldia amaitzean dutxatu nahi duenarentzat zabalik egongo dira Aritzbatalde kiroldegian 13:00etatik 18:30era.

Hemen aipatu ez den zerbaiten aurrean, antolatzaileen gain gelditzen da kasuan kasuko erabakia hartzea.